

DIRU SARRERAK

Diru sarrerak beharrezkoak dira enpresaren funtzionamendurako. Edozerengatik ordaindu behar da, eta gure produktua erabat garrantzitsua izanagatik herritarrek ordaindu beharko dute erabili ahal izateko. Bota Dik produktuen prezioen inguruko datuak azalduko ditugu. Prezioa finkoa izango da, hau da, aldagai estatikoen arabera aurrez definituta daude. Prezio finkoetan hainbat azpitalde daude: zerrendako prezioa, ezaugarrien araberkoa, merkatu segmentuaren araberkoa eta bolumenaren araberkoa.

Azpitalde horien artetik, zerrendako prezioa gure produktuari hoberen egokitzen zaiona dela uste dugu. Hau da, giltzatakoto botoidunaren prezioa finkoa izango da. Hori bai, gure ideien artean ere badago bezeroei giltzatakotoa pertsonalizatzeko aukera ematea, baina hori enpresak aurrera egin ahala erabakiko da. Produktua hobetzearekin batera prezioa ere igoko da. Hasieran, 15 euro balioko du giltzatakotoak, eta gerora prezio hori igo baldin badaiteke ere pertsonalizazioarekin batera, orainari begiratuko diogu.

Gure diru sarrerak, beraz, arlo pribatutik (bezeroei egiten zaien salmenta) lortuko dugu, aktiboen salmentaren bitartez, baina baita beste bide batzuetatik ere, diru-laguntzen bitartez, alegia. Beraz, ordainketa bakarreko diru sarrerak lortuko ditugu alde batetik (aktiboen salmenta), eta baita ordainketa errepikarikoak ere (diru-laguntzak).

Gobernuak berdintasunarekin lotutako negozioei diru-laguntzak ematen dizkienez gero, gure irabazien %25 hortik etorriko da; Espainiako gobernuko berdintasun ministeritzak %15 finantziatuko digu, eta %10a, udaletxeak. %75 bezeroen salmentatik lortuko dugu, %50 aurrez aurretik eta %25 internet bidez kotik.

